

# **Abuztuaren 20ko 641/1997 Foru Agindua, Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 430 eredia onartzekoa.<sup>1</sup>**

Abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko Neurriei buruzkoak, Aseguru Primen gaineko Zerga berri bat, zeharkako tributu bat, ezarri du, hain zuzen ere, aseguru eta kapitalizazio eragiketak kargatzen dituena.

Bestalde, abuztuaren 4ko 38/1997 Legea dela medio aldatua izan da Euskal Autonomia Elkartekeko Ekonomi Ituna onartzen duen maiatzaren 13ko 12/1981 Legea. Aldaketa horren ondorioz, besteak beste, lurralde historikoetako foru aldundiek beren gain hartzen dute Aseguru Primen gaineko Zerga ordainarazteko eskumena, beti ere aseguru eta kapitalizazio eragiketarako arrisku edo konpromisua euskal lurraldean kokaturik badago.

Ekonomi Itunaren arauketa berriaren arabera, zerga hori ordainarazteko, foru aldundiek Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen arau substantibo eta formal berberak aplikatuko dituzte, nahiz eta ahalmena ere izango duten Estatuko Administrazioak finkatutakoen aldean berez oso desberdinak izango ez diren aitortu eta ordainketa ereduak onartzeko.

Hortaz, kontuan izanik Ekonomi Itunaren aldaketa aurtengo irailaren 1ean sartuko dela indarrean eta ordutik aurrera aitortu-likidazioak foru aldundietan aurkeztu beharko direla arrisku edo konpromisua Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzen denean, bidezkoa da Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko eredia onartzea.

Horiek horrela, hauxe

## **XEDATU DUT**

### **1. artikulua. Aitortu-likidaziorako 430 eredia onartzea.**

Onarturik geratzen da Aseguru Primen gaineko Zergaren hileko aitortu-likidaziorako erabili beharreko 430 eredia, hain zuzen ere, foru agindu honi eransten<sup>2</sup> zaiona eta bi ale dauzkana: sujetu pasiboarena eta administrazioarena.<sup>3</sup>

---

<sup>1</sup> Azaroaren 23ko 994/1998 Foru Aginduak ereduaren kodea aldatu du, honela, 420 kodeari egiten zaizkion aipamen guztiak 430 ereduari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

<sup>2</sup> Eredu hau, Azaroaren 23ko 994/1998 Foru Aginduaren II. eranskineko ereduaren bitartez ordeztua izan da.

<sup>3</sup> Eredu hau ikusteko "zerga aitortuak" apartatura jo beharko duzue.

## **2. artikulua. 430 eredia aurkeztera behartuta dauden sujetu pasiboak.**

Ondoko hauek daude 430 eredia aurkeztera behartuta: batetik aseguru entitateak, beti ere Zerga honekin kargatzen diren eragiketak egiten badituzte, eta bestetik Europako Batasuneko beste Estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru entitateen ordezkari fiskalak, zergadunaren ordezkari gisa dihardutenak, baldin eta entitate horiek Espainian operatzen badute zerbitzu prestazio librearen erregimenean.

Aitortzen den hilabetearen barruan Zergari lotuta eta ez salbuetsia dagoen eragiketaren bat egiten duten sujetu pasiboek aurkeztu beharko dute Aseguru Primen gaineko Zergaren hileko aitorten-likidazioa.

## **3. artikulua. 430 eredia aurkezteko epeak.**

Aitorten-likidaziorako 430 ereduaren aurkezpena eta zerga zorraren aldi bereko diru-sarrera hileko likidazioaldia amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen hogeita bost egun naturalen barruan egingo da. Uztaileko likidazioari dagokiona, ordea, abuztuan zehar eta irailaren lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da.

## **4. artikulua. 430 eredia aurkezteko tokia.**

Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 430 eredia Zergabilketa Erregelamenduaren arabera zergabilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetako batean aurkeztuko da (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

## **AMAIERAKO XEDAPENA.**

Foru Agindu hau 1997ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

## **ALDAKETAK**

*Azaroaren 23ko 994/1998 FORU AGINDUA, Aseguru Primen gaineko Zergaren urteko aitortpen laburpena egiteko erabili beharreko 480 eredu onartzen duena, eta aldaketak sartzen dituena abuztuaren 20ko 641/1997 Foru Aginduan, hain zuzen, Aseguru Primen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 420 eredu onartzekoan. (BOG 30-11-1998)*

- Xedapen gehigarriak ereduaren kodea aldatzen du eta orain 430 izango da. Bestalde, II eranskinak eredu berria kode berriarekin aurkezten du.